



**BOTTOM UP PROIEKTUAK ONARTU ETA
EBALUATZEKO OINARRIAK
2022KO PROGRAMA-KONTRATUA**

**AURKIBIDEA**

1. Sarrera.....	2
2. Bottom-up (BU) proiektuen definizioa, garatze-esparrua eta onartzeko nahiz baztertzeko irizpideak	2
2.1 Definizioa	2
2.2 Proiektuen garatze-esparrua.....	3
2.3 Onartzeko eta baztertzeko irizpideak	4
2.3.1. Onartzeko irizpideak	4
2.3.2. Baztertzeko irizpideak.....	4
3. Eskabideak aurkeztea, proiektuak onartzea, baloratzea eta lehenestea/ponderatzea	5
3.1 Aurkezpena	5
3.2 Eskabideen onarpena	5
3.3 Proiektuen balorazioa eta onarpena.....	7
4. Proiektuen balioa PKan.....	9
5. Asistentzia-erakunde eskatzailearen eta proiektuko taldearen betebeharrak eta konpromisoak	9
6. Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa	9
7. Proiektuen hedapena	11
8. Ez betetzea	11



1. Sarrera

Bottom-up eta top-down proiektuak Kontratu Programaren (KP) kalitate-eranskineko ebaluazio-ereduaren ataletako bat dira. Jardunbide egokiak hedatzeko eta osasun-sare osora zabal daitezkeen hobekuntzak ekartzeko abiapuntua izatea nahi da. Gaur egun, atal hau kalitate-eranskin horri esleitutako puntu guztien % 15 da.

Dokumentu hau Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Osasuneko lurralde-ordezkaritzek koordinatuta egin da, eta Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak onartu du.

2. Bottom-up (BU) proiektuen definizioa, garatze-esparrua eta onartzeko nahiz baztertzeko irizpideak

2.1 Definizioa

Bottom-up (Bu) proiektuak ekimen berritzaileak dira, osasun-erakundeek oinarritik sortuak, eta osasun-sareko profesionalak diseinatzeko eta garatzeko dituzte. Jardunbide egokiak, erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuen kalitatea hobetzeko proiektuak, antolaketa-proiektu berritzaileak edo beste erakunde batzuetan jada garatutako ekimenak izan daitezke. Profesionalen ekimen berritzaileak jasotzen eta bultzatzen saiatzen dira, betiere erakundeek helburu estrategikoekin lerrokatuta badaude eta diseinu egokia badute. Proiektu horien filosofia osasun-erakundeetan ezagutza sortzea eta berrikuntza sustatzea da.

Bottom-up proiektuak, ahal dela, izango dira:

- Berritzaileak.
- Pazienteen eta biztanleriaren osasuna hobetzea sustatuko dute.
- Proiektua eremu edo erakunde gehiagotara zabaltzeko aukera jasoko dute.

Proiektuek arduradun edo koordinatzaile bakarra izango dute, eta konpromiso guztiak betetzeaz arduratuko da (ekintzak, kronograma, azken ebaluazioa, etab.).



2.2 Proiektuen garatze-esparrua

Proiektuen helburuak Programa-kontratuaren gidalerro eta dimentsioei loturik egongo dira:

1. Baliabideak
2. Zerbitzuak
3. Arreta integratua
4. Segurtasuna
5. Eraginkortasuna
6. Ekitatea
7. Pazienteengan oinarritua
8. Irisgarritasuna eta itxarote-zerrendak
9. Efizientzia

Onartuak izan daitezke Osasun Sailaren, Osakidetzaren eta Osasun Planaren ildo estrategikoei lotuta dauden proiektuak, nahiz eta goian aipaturiko dimentsioen barruan ez egon.

Urtero, proposatuko dira lehentasunezko, edo estrategikoak diren interes handiko gai batzuk erakunde sanitarioek garatu ditzaten.

2022an, lehentasunezko gaiak honako hauek izango dira:

- Koordinazio soziosanitarioa.
- Lehen mailako arreatik datozen proiektuak edo lehentasun-eremua lehen mailako arreta dutenak.
- Etxean zaintzen jarraitzea.
- Komunitate esparruan esku-hartzeak.
- Ekitatea eta desberdintasunak osasunean.



2.3 Onartzeko eta baztertze irizpideak

2.3.1. Onartzeko irizpideak

Aurkeztutako proiektuek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Aurretik aipatutako lerroren bati lotuta egotea.
- Eskabide-inprimakia behar bezala beteta aurkeztea.
- Asistentzia-erakundearen gerentziak edo mediku zuzendaritzak eta proiektuaren arduradunak izenpetuta eta onartuta egotea.
- Ikerketa egitea egokia eta egingarria dela justifikatzea.

2.3.2. Baztertze irizpideak

Baztertze irizpideak honako hauek dira:

- Gutxieneko puntuaziora (5 puntu) heltzen ez diren proiektuak.
- Ikerketa klinikoko proiektuak.
- Prestakuntza planei buruzko proiektuak.
- Eskabide-inprimakia ez betetzea edo behar bezala ez betetzea.
- Osasun erakundearen gerentziak edo Zuzendaritza medikuak izenpetu edo baimendu ez dituen proiektuak.
- Programa-kontratuaren barruko adierazleren batetan sartuta dauden proiektuak, ezer erantsi gabe. Halaber, ukatu baino lehenago, proiektua sartzeko arrazoiak justifikatzeko aukera emango zaie erakundeei.
- Aurreko deialdietan garatutako proiektu amaituak, beste erakundeetara zabaltzen ez direnak, eta ekintza berririk planteatzen ez dutenak
- Zerbitzu baten eguneroko jarduerak finantzatzeko proiektuak, nahiz eta lehenetsitako lerroekin bat etorri
- MIREn prestakuntza gainbegiratzearekin lotutako proiektuak.
- % 100ean beste bide batetik finantzatzeko proiektuak (FIS, Osasun Saila, Kronikgune, Aldundia, etab.)
- Beste erakunde batzuen lankidetzak eskatzen duten proiektuak, haien adostasunik gabe.

Eskabideak jaso ondoren, proiekturen batek deskribatutako irizpideak betetzen ez baditu, Osasuneko Lurralde Ordezkaritzak proiektuaren arduradunari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango dio akatsak zuzentzeko.



3. Eskabideak aurkeztea, proiektuak onartzea, baloratzea eta lehenestea/ponderatzea

3.1 Aurkezpena

Eskabideak aurkezteko **epea 2021eko uztailaren 1etik irailaren 17ra** bitartekoa izango da.

- Eskaerak egiteko, propio diseinatu den eskabide-orria bete beharko da eta Osasun Ordezkaritzara bidaliko dira, **posta arruntez edo elektronikoz**.
- Eskabidearekin batera eskuduna den Etika Batzordearen baimena aurkeztuko da, diseinuak hala behar badu.
- **COVID-19ren pandemiak sortutako salbuespenezko egoera dela eta**, BU 2021en deialdi honetan 2021an behar bezala landu edo osatu ezin izan diren proiektuak berriro aurkeztu ahal izango dira.

3.2 Eskabideen onarpena

Eskabideak onartuak izateko, beharrezkoa da eskabide inprimakia era egokian betetzea eta atal guztiak argi deskribatzea:

- Lehen aipatu diren onartzeko irizpide guztiak betetzea.
- Epe barruan aurkeztuko dira eta okerrak zuzenduta (hala eskatu bada), azken hauek ere emandako epean.
- **Eskabideak** osorik bete beharko dira, proiektuaren **helburuak**, **aurrekariak** (abiapuntuko egoera), proposatutako esku-hartzea garatzeko bete beharreko **ekintzak** eta **metodología**.
- Zehazki, metodologiari dagokionez, ondorengo atalak izango ditu:
 - Aztertutako biztanleria (lekua, denbora eta hautaketa-irizpideak kontuan hartuz definitzen den pertsona taldea).
 - Diseinua (Azterlan mota: zeharkakoa/luzetarakoa, deskribatzailea/analitikoa, behatzailea/esperimentala, prospektiboa/atzera begirakoa. Hala badagokio, ekintzaren deskribapena eman)
 - Aldagaiak (Azterlanerako garrantzitsuak diren faktore neurgarriak: mendekoak/ez mendekoak, kualitatiboak/kuantitatiboak, etab.)
 - Datuen bilketa (Lehen mailako datu-iturriak –inkestak, elkarriketak, oharra– eta bigarren mailako datu-iturriak –errola, historia klinikoa, ospitaleko altak eta abar–; neurketa-tresnen erabilera eta datuen bilketaren iraupena).



Ekitateari dagokionez, bi atal bereiziko dira:

- Genero-ikuspegia integratzea (Genero-ikuspegia barneratzen duen proiektu batek diagnostiko bat egin behar du, osasunean desberdintasunak sor ditzaketen emakumeen, gizonen eta haurren egoerak, rolak, beharrak eta interesak aztertuz, desberdintasun horiek desagerrarazteko edo murrizteko neurriak ipintzeko eta ekintzak burutzeko helburuarekin).
 - Ikuspegi sozioekonomikoa integratzea (Ikuspegi sozioekonomikoa barne hartzen duen proiektu batek gizarte-baldintzatzaileen ikuspegia jasoko du -diru-sarreraren maila, bizilekua, etnia, adina, ikasketak-maila, klase soziala, etab.-, osasun-arloko desberdintasunak saihesteko edo murrizten saiatzeko helburuaz).
 - Emaitzen analisia (hala badagokio, analisi estatistikoa mota eta erabilitako programa)
- Proiektuak espero daitezkeen emaitzei buruzko atal bat jaso beharko du, planteatzen den esku-hartzearekin bat datozen emaitza-erakusleen bitartez.
 - Aurkeztutako **kronogramak**, ahal den neurrian, indarrean dagoen Programa-kontratuaren denborarekin bat egingo du. Onartutako proiektu batek indarrean dagoen urteko programa-kontratuaren indarraldia gainditzen badu, erakundeak hurrengo deialdian aurkeztu beharko du. Hala egiten ez badu, agiri bidez egiaztatu beharko du amaitu dela, hitzartutako helburuak bete direla eta aurreikusitako ekintzak egin direla.



3.3 Proiektuen balorazioa eta onarpena

- Proiektuak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean (2021ko urriaren 18a baino lehen) ebaluatu eta onartu edo baztertuko dira.
- Osasun Ordezkaritzako Plangintza, Ikerketa eta Ebaluazioko zerbitzua arduratuko da proiektuak ebaluatu eta onartzeaz. Talde tekniko batek binakako berrikuspenaren bidez ebaluatuko ditu inklusio-irizpideak betetzen dituzten eskabideak.
- Proiektuan aldaketak egitea proposatu ahalko die balorazio lantaldeak parte hartzaileei, proiektua onartua izan dadin.
- Eskabideen ebazpena zerbitzu-erakundeko gerentzia eta/edo zuzendaritza medikoei jakinaraziko zaie, eta horiek proiektuaren arduradunari jakinaraziko diote.
- Onartutako proiektuak Kontratu-programan sartuko dira.
- Programa-kontratuaren II. eranskinean esleitutako puntu maximoak eskuratu ahal izateko, erakundeek honako hauek egin beharko dituzte:
 - Gutxienez 2 proiektu: Osasun Mentaleko Sareak, Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta Arabako Errioxa ESIak.
 - Gutxienez 3 proiektu 2. motako ESIak: (Debagoiena, Debarrena, Bidasoa, Tolosaldea, Goierri-Urola Garaia, Uribe eta Barakaldo-Sestao).
 - Gutxienez 4 proiektu 1. motako ESIak: (Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, Donostialdea, Bilbao-Basurto, Barrualde-Galdakao eta Araba).
- Aurkezten diren proiektu kopurua gutxiago denean, esleitutako puntuak proportzionalki gutxituko dira.
- Gehienez 15 proiektu onartuko dira antolakunde bakoitzeko. Proiektu gehiago aurkeztuz gero, puntuaziorik hoberen duten lehenengo 15ak onartuko dira.
- Proiektu bat onartua izateko, gutxienez 5 puntu lortu beharko ditu.
- Ebaluazio-irizpideak 1. taulan ezarritakoak izango dira.

1. Taula.- Eskaturiko proiektuak baloratzeko irizpideak:

	Balorazio irizpideak	Neurketa	Puntuak
1	Inplikaturako asistentzia-mailen kopurua (2 puntu): • LMA • EA • OMS • Egondaldi ertain/luzea • Osasun Publikoa	Maila 1	0
		2 maila	1
		3 maila	1,5
2	Emitzen erabilera praktikoa (3 puntu)	Erakundean eta/edo osasun sisteman	0-1
		Osasunean emaitzak (paziente edo familietan)	0-2
3	Proiektuaren kalitatea (3 puntu)	Helburuak (0,40), Ekintzak (0,40), Metodologia (1,2), Genero-ikuspegia (0,25), ikuspegi sozioekonomikoa (0,25), esku-hartzearen ebaluazioaren deskribapena (1)	0-3,5
4	Hedapenaren egingarritasuna (puntu 1)		1
5	Berrikuntza (puntu 1)		1
Guztira			10
Puntu gehigarriak PKn lehenetsitako gaiengatik (2 puntu)*			2

* Gehieneko puntuazioa, edozein kasutan 10 puntu izango da.

4. Proiektuen balioa PKan

- Kalitatearen aurrekontu osoaren % 15 proiektuen atalera bideratuko da (Bottom-up eta Top-down).
- 15 puntuen banaketa urtero berrikusi ahal izango da, Osasun Sailaren jarraibideen arabera.
- Zerbitzu-erakundeek gerentziak izango dira azterlan bakoitzari esleitutako kopurua jasoko dutenak eta proiektuen finantzaketaren bermatzaileak.

5. Asistentzia-erakunde eskatzailearen eta proiektuko taldearen betebeharrak eta konpromisoak

Asistentzia-erakunde eskatzaileak eta proiektuaren arduradunak konpromisoa hartzen dute proiektuen azken txostenak betetzeko eta Lurralde Ordezkaritzara bidaltzeko.

6. Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa

Programa-kontratua indarrean dagoen bitartean, Osasun Ordezkaritzetako teknikariek proiektuen nondik norakoen jarraipena egin ahal izango dute. Horretarako jarraipen txostena eskatu ahal izango dute edo erakundeei bisita egin, proiektuak sustatzen dituzten profesionalen eskutik proiektuak zuzenean ezagutzeko, ordura arte eskuragarri dauden datuekin.

Programa-kontratuaren ebaluazio-fasean (urriaren 31 baino lehen), proiektuen arduradunek beren emaitzak aurkeztuko dizkiote talde ebaluatzaileari, dagokion fitxa betez. Fitxa hori proiektuen azken ebaluazioa egiteko oinarria izango da, eta egokitzen jotzen duten dokumentazio gehigarria erantsi ahal izango diote.

- Kronograma edo atzerapenak direla-eta programa-kontratuaren ebaluazio formalaren aldia emaitzarik ez duten proiektuen kasuan, emaitza horien txosten osagarria eskatu ahal izango da.
- Azken txostena Osasuneko Lurralde Ordezkaritzara bidaliko da. Proiektuaren arduradunak eta erakunde sanitarioko gerentziak/zuzendaritza medikoak sinatu beharko dute..

- Plangintza, Ikerketa eta Ebaluazio Sanitarioko Zerbitzuak ebaluatuko ditu amaierako txostena eta lortutako emaitzak, 2. taulan ezarritako irizpideei jarraikiz.

2. Taula.- Azken ebaluazioa egiteko irizpideak, 2022ko urria:

Balorazio irizpideak	Neurketa	Puntuak atalka
Ekintzen betetzea	% 100 ean beteta (5 puntu)	5 (gehienezko puntuak)
	Beteta > %75 <%100 (4 puntu)	
	Beteta > 50 % - 75 % (3 puntu)	
	Beteta > 25 % - 50 % (2 puntu)	
	Beteta < 25 % (1 puntu)	
	Ez dira bete (0 puntu)	
Emaitzak eta espero diren helburuekiko egokitasuna	Emaitza osoak eman dira, eta bat datoz espero ziren helburuekin (3 puntu)	3 (gehienezko puntuak)
	Emaitza partzialak ematen dira edo ez datoz guztiz bat helburuekin (1,5 puntu)	
	Ez dira ematen (0 puntu)	
Aurkezturiko agirien kalitatea	Dokumentazioa egokia eta osoa da (2 puntu)	2 (gehienezko puntuak)
	Nahikoa, baina osatu gabekoa (1 puntu)	
PROIEKTUAREN PUNTUAK GUZTIRA (gehienez 10 puntu)		

Lortutako puntuazio orokorra, ebaluazioaren amaieran aurkeztutako Bottom-Up guztien artean lortutako puntuazioen batura izango da, eta eskaera egindako unean jasotako puntuazioarekiko proportzionalki baloratuko dira.



7. Proiektuen hedapena

Urtero, Lurralde Ordezkaritza bakoitzak, erakunde sanitarioekin kontsultatu ondoren, hautatu egingo ditu bere lurraldean balorazio eta proiektzio handiagoa izan duten ikerlanak. Helburua: maiatza-ekaina aldera jardunaldi bat egitea sare-asistentzial guztientzako interesgarriak eta aplikagarriak izan daitezkeen ikerketak aurkezteko.

8. Ez betetzea

Betebeharrak betetzen ez badira, programa-kontratuan proiektuari esleitutako guztizko puntuak gutxituko dira.